

GIZALEGEZKO LANAREN ALDEKO ELEIZBARRUTIKO EGUNA

2021.eko APirilak 18, DOMEKEA

LANAREN KRISTAU SENA .

GIZARTEAREN MUINA, LAN DUINA.



Zer dala-eta Eleizbarrutian Domekea lanari eskaini?



Lanaren bitartez gizon eta emakumeok Jainkoaren antz eta irudiko sortuak izan ginala erakusten dogu. Horregaitik, lanak gizon-emakumearen nortasunik sakonena agertzera emoten dau. Halanda be, gaur egun hedatuta dagoan ekoizpen eta kontsumo jardunbideak lana merkantzia huts bihurtu dau eta makina bat gizon eta emakumeri duintasuna ukatzen deutse eta bereizkeria eta bazterkinak (langabezia, behin-behineko lana, pobretasuna,...) eragiten ditu. Gutako bakotxak, kristau alkarte lez, lanaren gizatiartze-senaz jabetu behar dogu eta, ondoren, gure gizartean lana garapen eta hazkunde pertsonalerako iturri izatea galarazten daben

inguruabarrez ohartu.

Horregaitik, Eleizbarrutiak gizalegezko lanari eskainiko deutso **eguna**, hain zuzen be **apirilaren 18an, domekaz**. Bakarka eta taldean gogoeta eragiteko agiri hau lagungarri izan daikegu lanaren kristau senean, bere gizatiartze-senean sakontzeko eta hori galarazoten daben oztopoez jabetzeko.

IKUSI

1. Laneko hainbat esperientziari aurpegia ipini



Emakumea

Nire lan-ibilbidea, ezgonkorra izan da eta hainbat unetan egundoko zailtasunak izan dodaz lana aurkitzeko. Emakume izanda, ostalaritzan eta gasolindegietan lan egin neban, baina langabezian geratu nintzan eta nire egoera pertsonalaren eraginez gero eta gatzagoa zan lanposturen bat jadestea. Caritasen bitartez ekin neutsan laneratze barrirako egitasmoari. Orientazino, akonpainamendu eta heziketaren bidez merkataritzako laguntzaile izateko prestatu nintzan. Gizarte trebetasunak eta laneko ohiturak garatu nebazan. Gustuko dot goizez altxatzea lanera joateko. Orain, ehun-gaien denda batean lan egiten dot. Segurtasuna, neure buruarenganako konfiantza, burujabetza, etorkizuna emoten deustaz.





Familiako aita

Nire familia, siriarra da. Errefuxiatu-esparru batetik heldu ginan Bilbora. Bikotea eta lau seme-alaba gara. Lekuko boluntarioen taldeak laguntasun handia eskaintzen deuskue. Oraintsu, lekuko merkataritzan dabezan kontaktuei esker, lanpostua aurkitu dot denda batean. Nire lanbidea berreskuratu eta arlo honetan dodan jakintza errealitate barri honetan erakusteko aukera emon deuste. Aintzakotzat hartzen nabela uste dot eta kultura desbardin bi gerturatu doguzalakoan nago. Lana egiteko aukeraren eraginez, nire familiaren etorkizunari beste ikuspuntu batetik begiratzen deusagu.



Gizona

Azken urteetan, nire egoera korapilatsua izan dala esango neuke. Baina, une honetan, lanean hasi aurreko heziketarako eta gaikuntzarako tailer batean parte hartzean, gogotsu eta eraginkor sentiarazten nau. Goizero buzoa janzteak zerumuga zabaltzen deust eta gainerako pertsonen modukoa nazala erakusten. Lana erraza egiten jat eta pozik nago. Eta hemendik hilebete batzuetara, industria baten kontratatuta, inguruan lankide asko dodala eta bizitzeko nahikoa dan soldata irabaziz irudikatzen dot neure burua.



Gaztea

Leire naz, Euskadiko JOC mobimentuko militantea. 2019ko Gabonen aurretik bizi izan eban nire lehenengo esperientzia lanean, Zornotzako taberna batean. Gogoz eta ilusinoz hasi nintzan, ikastaroa egin neban heldzean eta hiru hilebeteko probaldia izan neban. Oso gustura egon nintzan eta gauza asko ikasi neban.

Aitatutako probaldi horren ostean, kontratua egin eusten. Pozik nengoan, lehenengo aldiz sinatzen nebalako kontratua, baina lanak aste bi iraun eban, covid-19a gainean geunkalako, egoerak okerrera egin ebalako eta han jarraitzeko aukerarik ez egoanez, etxera bialdu ginduezalako. Txarto pasatu neban, kontratua sinatzeak eragin eustan ilusinoa laster amaitu zalako eta egundoko beherakada jasan nebalako etxera joan behar izateagaitik, bueltatuko ginan ala ez jakin barik. Gogorak izan ziran etxean eman nebazan hiru hilebeteak, lanera bueltatzeko irrikan nengoan-eta, baina maiatzean, barriro zabaldu eta negozioaren bilakaera ikusteko asmoa ebela esan euskuen. Barriro zabaldu genduan, baina bezero gitxiago joaten zanez, otorduak emoteari itzi geuntsan. Handik egun batzuetara, batu egin ginduezan eta egoerak okerrera egin ebanez, onena ixtea zala esan euskuen. Egundoko pena hartu genduann baina, egia esan, espero genduan holako zerbait. Gauzak jaso, jatekoa banatu eta behin betiko itxi genduan. Oraindik ez dakigu barriro zabalduko dan ala ez. Bertan lanean genbilzanok beste lan batzuk aurkitu doguz. Zornotzako garbiketa-zerbitzuan ari naz Gabonen aurretik eta, larregi erakarten ez nauan arloa bada be, ezinbestekoa dot lan egitea, etxeko egoera ez da-eta ona, aita ERTEan dagoalako iazko udatik, amak lanaldi erdia daualako eta anai-arrebak ikasten ari diralako. Beraz, nahitaezkoa da etxera dirua eroatea eta laguntzea aurrera egin ahal izateko.



2. Gizalegezko lanaren garrantzia gizartean

Lan duina, gizalegezkoa, gizarteak bere garapen eta gizatasuna neurtzeko darabilen funtsezko adierazlea da. Gizartea gizalegezkotzat joteko ezinbestekoa da herritarrek lan duina izatea. Historian zehar, laneko dalako jardunbide batzuk, esate baterako esklabotasuna edo umeen esplotazioa, gaitzetsi egiten dituan gizarte adostasuna eratu eta hedatu izan da. Halanda be, lanaren antolamenduaren beste hainbat ondorio, esate baterako behin-behinekotasuna edo langabezia, ez dira hainbesteko erabatekotasunez gaitzesten, beharbada saihestea ezinezkoa dala pentsatzen dalako. Zorionez, lagun askoren ustez gizon eta emakumeen laneko duintasuna ezinbestekoa da, lana babestu eta zaindu egin behar dogun bizitzako oinarritzko atala da-eta.



Gure gizarte, ekonomia eta kultura sistemak lana, produktu bilakatu dau, pertsona, ekoizle-kontsumitzaile eta bere bizitza, errentagarritasunerako bitarteko, gizon-emakumeen eta gizartearen ezinbesteko beharrianak ahaztuz. Egitura-sistemaren krisia nabarmena da eta bertan gizarte ereduak, funtzionatu daian, ezinbestekoa dau lanbide ezegonkorra, azpienplegua.

Gaur egungo antolamendua ikusita, lana gizatasunaren aurkako bitarteko bihurtu da, honako honeek dira-eta bere ezaugarriak: malgutasuna, langabezia eta behin-behinekotasuna, txirotzea eta ahultasuna, gizarte babesgabetasuna eta txirotuen erruduntasuna

3. Lana eta lanbide ordaindua, gauza bera ete dira?

Bakarrik prezioa dauana aintzat hartzera ohitu gara, hau da, bakarrik soldataren truke egiten dan lanbideari emoten deutsagu balioa. Lanbide ordaindua ez dan lanaren sena eta balioa berreskuratu egin behar dogu, gitxietsita dagoan hainbeste lanek pertsonentzat eta gizartearentzat dauan balioa autortu. Makina bat adibide dago: etxeko eta familiako zaintza- eta mantentze-lanak; gizarte, herri, heziketa... erakundeen jardunbidea... Soldataren truke egiten ez diran lan honeen senaz jabetuz eta baloratuz, lanaren eremua orokorrean gizatazunez beteteko bidean aurrera egiteko aukera izan daikegu.

Batzuetan, lana eta lanbide ordaindua bardintzat jotzen doguz. Baina bada pertsona hobe izaten, gizarte zuzenagoa eraikitzen laguntzen deuskun hainbat lan: zaintzak, boluntario lana, konpromisoa gizarte alkarte eta erakundeetan...



EPAITU

4. Lana, kreazinoan Jainkoaren lankide izatea da

Gure kasuan, kristau lez, lana gizalegezko gizartea izateko ezinbesteko osagai dala pentsatzeaz gainera, giza familia zaintzeko eta giza familia lez hazteko aukera emoten deuskula eta Biziaren Sortzaile dan Jainkoagaz lotzen gaituala ikusten dogu. Lanak Jainkoaren irudiko pertsona izaten lagundu behar deusku, *“gizarte bizitzako nahitaezko alderdi da-eta, ogia irabazteko bide izateaz gainera, hazkunde pertsonalerako, hartu-emon sanoak ezartzeko, nork bere burua aditzera emoteko, doeak banatzeko, munduaren hobekuntzan ardurakide sentitzeko eta, azken batean, herri lez bizitzeko bide dalako”* (Fratelli tutti, 162).

Lana bizigai da. Holantxe pentsatu dau Jainkoak gizabanako bakotxarentzat, jatorria, ikasketamaila, sexua, ...dala-eta bereizketarik egin barik.



6

Aita langilea

San Jose, familiaren ogia ziurtatzeko zintzo lan egiten eban arotza zan.

Jesusek norbere lanaren frutu dan ogia jatearen balioa, duintasuna eta poztasuna ikasi eban berarengandik.

Lana, salbazinorako egintzan parte hartzeko, norbere ahalmen eta gaitasunak garatu eta gizartearen eta batasunaren zerbitzura jarteko aukera bihurtzen da.

Frantzisko Aita Santuak San Joseren inguruan dihardu “Patris Corde” Gutun Apostoliko barrian. *“Familiari ogia ziurtatzeko”* lan egin eban arotz zintzoa zala dino, baina, aldi berean, *“norbere lanaren frutua dan ogia jateak”* dauan *“balioa, duintasuna eta poztasuna”* erakusten deuskuzala. Jesusen aitatzakoaren esanahi honek aukera emoten deutso Aita Santuari *“gizartean preminazko auzi”* bihurtu dan -baita ongizate-maila altu samarra dauan hainbat herrialdetan be- lanaren aldeko deialdia egiteko: *“Ezinbestekoa da duintasuna emoten dauan lanaren senaz jabetzea”, ezinbestekoa da “salbazinorako egintzan parte hartzeko*

aukera bihurtzen dan lanaren” adiera, norbere eta familiaren *“osotasuna jadesteko bide”, “gizartearen jatorrizko erdigune”* dan lanaren adiera ulertzea. Lan egiten dauanak, Jainkoagaz alkarlanean dihardu, *“inguratzen gaituan munduaren sortzaile bihurtzen da-eta apur bat”*. Hori dala-ta, dei egiten deusku Aita Santuak *“lanaren balioaz, garrantziaz eta ezinbestekotasunaz jabetu gaitzean barriro, “normaltasun” barria ezarri eta inor kanpoan geratu ez daiten”*. Covid-19 pandemiaren eraginez langabeziak okerrera egin dauala-eta, Aita Santuak dei egiten dau *“gure lehentasunak aztertu”* daiguzan eta *“gazte, pertsona, familia bakar bat bez lan barik!”*, esatera konprometitu gaitzean.



5. Zer dino Eleizaren Doktrina Sozialak lan duinari buruz?


Honan definitu dau Eleizaren Doktrina Sozialak lan duina: *“askatasunez aukeratzen dan lana da, langileei, gizon eta emakumeei, euren alkartearen garapenari eraginkortasunez lotzen jakena; era horretara, langileak begirunez hartzea ekarriko dauana, bereizkeriak saihestuz; familien beharrianak asetzeko eta umeak, lan egitera behartu barik, eskolatzeko bide dan lana; langileei askatasunez antolatzen eta euren ahotsa entzunarazoten itziko deutesen lana; eremu pertsonalean, familiakoan eta espiritualean norbere sustraiakaz egokitasunez berraurkitzeko eremua itziko dauan lana; erretiratzen diran beharginei baldintza duinak ziurtatuko deutsezan lana.”* (Caritas in Veritate, 63)

Baina, aurrez aurre dogunak, bizi dogunak, ez deusku holakorik islatzen: lanak gero eta lotsagarriagoak dira, edo langabezia izurrite bihurtu dalako edo behin-behineko lan bihurtzen ari diralako. Aukera askotxotan, lana...

- Ez da askatasunez aukeratzen, “ataraten dana hartu” behar da-eta.
- Ez da alkartearen garapenari lotzeko bide, ez dogu-eta pertsonen benetako beharrianei erantzuteko lan egiten eta “gaur hemen eta bihar ‘auskalo’ non” lan egin behar dogulako.
- Es deusku ez eroso bizitzeko balio eta, askotan, ezta oinarrizko beharrianak asetzeko be. Askok eta asko pobre da, nahiz eta lan ordaindua izan.
- Ondoz ondoko lan-erreformen eraginez, eskubideak murriztu egin dira eta, ondorioz babes gitxiago dogula eta ahulago gagozala sentitzen dogu.
- Ez deutso geure bokazioari erantzuten, ez da geure buruaren osotasuna jadesteko bide.
- Hil eta gaixotu egiten gaitu: laneko ezbehar-kopurua benetan mingarria da.
- Isildu egiten gaitu, hainbeste langabezia eta ezegonkortasun aurrez aurre izanda, ez garalako beste langile batzukaz alkartzera eta bidegabekeriaren aurka ozen garrasi egitera ausartzen.
- Familiaren aurka antolatzen da: sortzen diran lanpostuek “zero oztopo” eskatzen dabe, hau da, familia kargarik ez izan eta denpora guztia enpresen eskakizunetarako eskaini.
- Oztopo-lasterketa bihurtu da gure erretiroa ziurtatzeko.



6. Lanak gizatasun eta osotasun beterako bide izan behar dau



Lanean, pertsona bera da benetan garrantzitsua. Egindako produktu edo zerbitzua eta erabilitako bitartekoek bere esanetara egon behar dabe. Gure lanaren bidez, Jainkoaren irudi garala, Jainkoaren alkartasun-egitasmoan lankide garala konturatzen gara. Horregaitik, domekaz atsedean hartzen dogu eta Eukaristiaren mahaiaren inguruan alkartzen gara eta, ogi eta ardaoaz batera, bizitza eta lana aurkezten doguz.

Lanak gure beharrizanei erantzun behar deutse (eguneroko ogia eskuratzeko balio behar dau). Baina beharrizan guztiei, hau da, materialez gain, kulturali eta espiritualei. Eta batasunerako, alkartasunerako, gizarte eraikuntzarako, giza garapenerako bitarteko izan behar dau. (Torlojuak egiteak, oinetakoak saltzeak edo Caritasen boluntario lez jarduteak gizarte garapena dakar; diruagaz espekulatzeak, ez).

Frantzisko Aita Santuak Joserren jarrera abegikorraz hitz egiten deusku. Eta jarrera hori geure eginez, kristau alkarteok adiskidez eta senidez osatutako alkarte abegitsu izan behar dogu, laneko eremuan sufritzen dagozan pertsonen behin-behinekotasunari eta ahuleziari erantzuna emonez.

“Josek aurretik baldintzarik ipini barik hartu eban Maria... Jesusen harrera hori, dei da guretzat, gainerakoak bazterketa barik, diran lez, ahulenak lehenetsiz hartu daiguzan, Jainkoak ahoa aukeratzen dau-eta (ik. 1 Ko 1, 27), «umezurtzen aita, alargunen defendatzaile» (Sal 68,6) da-eta eta atzerritarra maitatzeko agintzen deusku-eta”. (Patris Corde Gutun Apostolikoa).

Irabaziaren eta lehiaren kulturaren aurrean, preminazkoa da doakotasunaren eta dohaintzaren kultura sendotzea. Bestelako kultura batek zuzenduko ditu oraingo desorekak eta beste era bateko ekonomia eta gizarte antolamendua hasiko dau.

Baina, jasaten doguzan arazoek egiturazko alderdia eta alkarte alderdia dabenez, ezinezkoa da urtenbide pertsonal hutsa; arazoei aurre egiteko, alkarte eta egiturazko aldaketak bilatu behar doguz, beste batzukaz batera jardunez, sistemak gogorren astindutakoei borrokan lagunduz, alkartasuna bizimodu bihurtuz, beste era bateko bizimoduaren eta bakarkako eta alkarteko beste jardunbide batzuen eguneroko esperientziak, esperientzia bakunak eratuz.

Beste era atera esanda, gizalegezko gizartea izateari begira lan duinaren alde borrokatzeak merezi dauala uste badogu, geure burua gizatiartu egin behar dogu, kultura eta erakundeak gizatiartuz, gizon eta emakume guztien eta, batez be, txirotuen esanetara egon daitezkan bete ezer baino lehen. Behin eta berrero eta ozen aldarrikatu behar dogu gizon-emakumearen duintasunaren nagusitasuna ekonomia, lan edo gizarte jarduera guztien oinarri lez.




7. Lan duinaren inguruko hainbat esperientzia Eleizbarrutian

Hona hemen, bizkeliza.org web orrialdean jaso izan diran eleizbarrutian oraintsu burutu diran eta adiskide eta senidez osatutako alkartean lan duinaz hitz egiten daberen ekimen batzuk.



Eleizak bat egin dau Gizalegezko Lanaren aldeko Eguneko aldarrikapenakaz 2019.10.01

Urriaren 7an, Gizalegezko Lanaren aldeko Munduko Eguna ospatzen da. Egun horretan, hainbat eleiz erakunde batzen dauan Eleiza Gizalegezko Lanaren alde Ekimenetik askotariko zeinu, ekitaldi publiko eta ospakizun proposatuko dabe gizartean eta Eleizan gizalegezko lanaren alde egiteak dauan garrantzia agertzera emoteko eta horren inguruko sentiberatasuna bizteko.



“193.000 lagunek zailtasun nabarmenak dabez bizimodu duina izateko gure gizartean” 2019.11.26

Euskadiko Caritasek “FOESSA Euskadi II. txostena” ezagutzera emon eban joan dan astean Donostian. Darlos Bargos Bilboko Eleizbarrutiko Caritaseko zuzendariak Radio Popular-Herri Irratiari azaldu ditu Euskal Herriko Bazterketa eta Garapenari buruzko txosten honen emaitzak irakurteko giltzak.



Bizkaiko Eleizak laneko ezbeharretan hil diran pertsonak gogoratu ditu 2020.04.23

Aste honetan, langileen eta lanaren eremuan guztiz esanguratsuak diran egun bi ospatuko doguz: bihar, apirilak 28, Laneko Osasun eta Segurtasunerako Munduko Eguna eta barikuz, maiatzak 1, Lanaren Nazinoarteko Eguna. Langile Pastoralatzatik, Covid-19 birusaren pandemiaren ondorio gogorrez jabetuta, alarma-egoera indarrean sartu zanetik laneko istripuan Arrigorriagan hil dan lehenengo biktima gogoratuz ospatuko dabez, “Zaldibarreko luizia kontuan hartu barik, zazpi hildako” izan dirala ahaztu barik. Pandemian etxeko lanak egiten diharduen emakume langileen lan baldintza eskasak be salatu gura dabez.





Bilboko gotzainek laneko duintasuna “erantzukizun, ilusino eta itxaropenez” defendatzeko eskatu dabe

2020.09.29

Urriaren 7an, Gizalegezko Lanaren aldeko Munduko Eguna ospatuko da eta, hori dala-eta, On Mario Izeta Bilboko gotzainak eta On Joseba Segura gotzain laguntzaileak gutuna idatzi deutse Eleizbarrutiari, honako hau aldarrikatuz: “anai-arreben gizartea, Jainkoak bere seme eta alabentzat amesten dauanaren antzekoa eraikitze bidea, desbardintasun sakonak saihestea eta gizatalde batzuk baztertzeko edo pobretasunera kondenatzeko arriskua gainditzea da”. Gotzainen ustez, “lanbide duinerako eta garapen profesional egokirako aukerak sustatzea” da helburu hau lortzeko bitartekorik eraginkorrenetakoa.



HOACen dei bizia gizarte zuzenagoa ahalbideratzeko lankidetzazubiak eraikitze

2020.12.30

Atzo –martitena- Sestaoko Andra Mari parrokian eta, ostean, langileriari eskainitako monumentuaren inguruan, Kasko plazan, HOAC-BIZKAIK hasiera emon eutsen bere sorreraren 75. urteurreneko ekitaldiei, 75 lagun ingururen partaidetzagaz. Hiru militantek agertzera emon eben HOAC mobimentuko taldeek, fedetik, parrokietan eta gizarte plataformetan (alderdiak, sindikatuak eta gainerako alkarteak) txertatzea sustatzen dabela, erronka barriei aurre eginez: immigrazinoa, laneko malgutasun eta mugikortasuna. Jarduera horretan, azaldu ebenez, “bategitea, senidetasuna eta zaintza bultzatzen dira, pentsaera eta egitura ekonomiko, politiko eta sozialak aldatzeko, lanera duintasuna eroateko eta lanaren alkarte egiteko eragiteko helburuagaz. Gaur sekula baino gehiago, ezinbestekoa da indarrak batzea eta lan duina hedatzeko ezinbesteko diran zaintza eta guztion ona lehenetsiko dituan gizartea eratzeko zubiak sortzeko”.



On Joseba Segura gotzaina: “Pertsonen salerosketa giza duintasunaren aurkako eraso larria da”

2021.02.03

On Joseba Segura Eleizbarrutiko gotzain administratzaileak inauguratu dau gaur pertsonen salerosketa agertzera emoten dauan argazkien erakusketa ibiltaria: ‘Puntu eta jarrai. Bizia ahaltzuzago da’. Gotzainak hasieran adierazo dauanez, Drogaren eta Delituaren aurkako Nazino Batuen Bulegoak atzo bertan ezagutzera emon eban txostenean jasoten danez, hiru bider gehitu da mutiko eta neskatuen kopurua pertsonen salerosketaren biktimei dagokienez munduan. Beste datu bat be gehitu dau: “Espainia biktima horreen Europako lehenengo herrialde hartzailea da. Gaur inauguratzen dogun erakusketa honek argi apur bat eroan gura dau salerosketaren errealidade ezkutu horretara, ezkutatuta dagoan horretara begiratzen lagundu gura deusku. Belarri eta bihotz asko behar dogu ezkutatu gura dana oihukatzerara atara daitezcan bideetara, salatzeke, prebenitzeko eta sendatzeko prest”.

8. Galderak gogoeta eta alkarrizketarako:

Gogoratzen dogu garrantzi handikoa izan arren gitxi baloratzen dan lanik?

Gure bizigiroetan, zelan antzematen da lana? Zergaitik da garrantzitsua gizon eta emakumeen bizitzarako?

Aitatu daikegu gizon eta emakume lez, Jainkoaren seme eta alaba lez dagokigun funtsezko duintasunaren adierazpen ez dan lanen bat?

Egin daikegu zerbait, bakarka eta alkartean, anai eta arreben gizartean lan duina lortzeko helburuari dagokionez?

